

# Historiaren orbanak

**Izenburua:** Jaiotze markak **Jatorrizko Izenburua:** Birth marks **Egilea:** Nancy Huston **Itzultzailea:** Iñigo Errasti **Argitaratze urtea:** 2009 **Argitaletxea:** Alberdania.

## ANDER ARANA

**JAIOTZE** markak eleberriari buruz hitz egin denetan, kritikari ia guztiek, haren muina esaldi bakar batera ekarri beharraren beharrez, honen antzeko zer edo zer jaso ohi dute: birramonaren haurtzaroko gertakari izugarri batek lau belaunaldiren patua markatuko du, Historiak historia txikietan duen eraginari buruzko istorio honetan. Eta neurri batean hala da, baina hori Nancy Hustonen eleberri arrakastatsu honek iradoki di-tzakeen hamaika interpretazioetarik bat baino ez da. Halatan, eleberri hone-tako lau ataletan, XX. mendearen

azken hirurogei urteetako gertakiririk lotsagarri eta lazgarrienetakoak kontatzen dizkigu Hustonek (Abu Ghraibeko torturak, Sabra eta Shatilako sarraskia, nazien *lebernsborn*etako edo bizi-iturrieta-ko haurren zoritxarra...), beste interpretazio bat, hain justu kontrakoa, egiteko balio dezaketenak; alegia, gertakari izugarriak pairatuagatik ez dugula ezer ikasi, eta nahikoa dela bi belaunaldi pasatzea, nazien atzaparretan eroritako neskatoaren biloba Randallek bere aurreko ahaideen oinazea ahan-tzi eta “arabiar puta horiek” akabatu-tuko lituzkeela aldarrika-tzeko. Izan ere, aitona Sadieri diotson legez, “gizadiak ez du beti aurrera egiten, batzuetan atzera egiten du”, eta, sarri askotan, inguruko gertakari handiak gorabehera, txikikeriek eta umekeriek markatzen dute gure bizitza: panpina bat dela medio

haserretu ziren umetan Kristina eta Greta, eta hirurogei urteren buruan berriz elkar-tzen direnean, panpina haren erruz piztuko da euren arteko azken ika-mika.

Nancy Hustonek orainetik iragenerako bidaia proposatzen digu, 2004an hasi eta 1944an bukatuta. Alderantziz ere antola zezakeen eleberria, eta hala egin izan balu, irakurleak bere aldetik ahalegin txiki-ena ere egin gabe jarraituko zituen istorioaren hari guztiak, bai-na bidaia orainetik iraganera egin beharrak irakurketa arretatsu eta aktiboa egitera behartzen gaitu, eta, horrenbestez, biktimaren larruan jartzera, *Jaiotze markak* eleberri honetako narratzaile guz-tiak direlako, hein batean, biktima.

Eta hori dena, eta askoz gehiago, lau umeren ahotan ematen digu –Sol, Randall, Sadie eta Kristina–. Haur baten ikuskera baliatzeak,

ordea, badu bere arriskua, idazle gutxi batzuen esku baino ez baitago narrazio sinesgarri bat eraikitzea sei urteko haur baten ahotan, eta oraingo honetan esango nuke ahots sinesgarri hori Sadieren kasuan baino ez duela lortu bete-betean, eta hori, beharbada, Nancy Hustonek bere burua ume horrengan islatu izanari zor zaio (biak dira neskak, biak kanadarrak, biak 1950eko hamarkadakoak, biek bizi izan dute amaren falta...). Sol txikiaren kasuan, aldiz, kosta egiten da haur batengan halako diskurtsoa eta halako goiztiartasuna eta soraiokeria naturaltzat hartzea (“argazkiak ateratzen dizkiete larru gorritan dauden arabiarrei, barre egiten dute haien kontura, uhalak jartzen dizkiete lepo inguruan (...) eta horrek gogor-gogor jartzen dit zakila, baina ez dut ukitzen, ez dut astirik”). Gaur egungo Ameriketako

Estatu Batuetan haurrei ematen zaien hezkuntzari buruz eta gizartean berean nagusi diren balio etikoei buruz Nancy Hustonek egiten duen deskribapena hain da zorrotza eta gordina, non AEBetako edizioan kenarazi egin nahi izan zizkieten Irakeko gerrari buruzko aipamenak. Nahi izate aldera, egin-gozuen, ze Nancy Huston bera arduratzen baita ingelesez idazten dituen lanak frantsesera itzultzeaz, eta frantsesez sortutakoak, berriz, ingelesera; eta egon badago, zenbait pasartetan behinik behin, bi hizkuntzetako edizioen arteko aldea. Euskarazkoa, berriz, Iñigo Errasti bizkaitarrarena da; esango nuke, albo batera utzita azken orrazketak harrapatu ez duen zorritxoren bat edo beste, asmatu egin duela bai narrazioaren tonua, bai hizkera, bai erritmoa ematean. Irakurleak zinez eskertuko dio.